

JARRAIPEN TXOSTENA

AZTERTUTAKO TITULAZIOA	HAUR HEZKUNTZA GRADUA
AZTERTUTAKO ZENTROA	HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
AZTERTUTAKO UNIBERTSITATEA	MONDRAGON UNIBERTSITATEA
JARRAIPENAREN PEAN DAGOEN IKASTURTE AKADEMIKOA	2010-2011

Titulu ofizialak nola ezarri arautzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren (uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuak aldatzen duenak) 27. artikuluan eta urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuaren 17. artikuluko 4. Atalean ezarritakoari jarraiki, goian aipatutako unibertsitate titulazio ofizialaren jarraipena egin da.

Jarraipen prozedura hau 2012ko urriaren 16an Unibasqeko Aholkulari Batzordeak onartutako Euskal Unibertsitate Sistemako Unibertsitate Titulu Ofizialen Jarraipenerako Protokoloaren arabera egin da. Aipatutako protokoloa CURSA Batzorde Teknikoak (Jarraipena eta Akreditazioa Arautzeko Unibertsitate Batzordea) landutako "Unibertsitate-titulu ofizialen jarraipena egiteko eta akreditazioak berritzeko protokoloa" eta indarrean dagoen araudiaren arabera sortu da.

Txosten hau Unibasqeko zuzendariaren 2012ko azaroaren 30eko eta 2013ko maiatzaren 23ko ebazpenen bidez izendatutako Tituluak Ebaluatzeko Batzordeak egin du era kolegiatuan aurrerantzean zehazten diren atalei jarraiki:

1. ESKURA DAGOEN INFORMAZIO PUBLIKOA

Irizpidea betetze mailaren azterketa:

Webgunean eskainitako informazioa oso eskura erraza eta argia da formatuari, azalpenen ordenari eta nabigatzeko erraztasunari dagokienez, baina, dena den, oraindik ere badago zer hobetu zenbait alderdi espezifikotan, eta alderdi horiek hobetzeko gomendio batzuk emango ditugu jarraian.

Oro har, informazioa objektiboa da eta tituluaren memoriarekin bat dator. Gainera, tituluaren ulertzeko beharrezko tresnak jartzen ditu ikasle izan daitezkeen eskura.



Hobekuntza proposamenak:

Jarraian, zenbait ohar emango ditugu, gomendio gisa, webgunean eskuragarri dagoen informazioa hobetzeko:

- Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan emandako informazioa ez dator bat zenbait puntutan. Esaterako, "Irakaskuntza eredu" izeneko atalean gaztelaniazko bertsioan formakuntza programan zehar kredituen banaketari buruzko informazio orokorra besterik ez da azaltzen eta "Ikasle berriak" atalean "Izen-ematea eta matrikula" azpiatalari buruzko informazioa besterik ez da agertzen, euskarazko bertsioan informazio zehatzagoa emanez.
- Ingelesezko informaziorik ere ez dago, nahiz eta horretara iristeko lotura bat izan. Hobe litzateke hizkuntza horretako bertsioa jasotzea, edo bestela lotura kentzea.
- Adierazi eskainitako plaza kopurua.
- Sartu irauteko arauari buruzko informazioa.
- Sartu gutxienerako ECTS kredituei buruzko informazioa, denbora osoaren edo partzialaren arabera.
- Sartu gomendatutako profila.
- Irakasgai guztien programa sartu, lortu beharreko helburuak/gaitasunak, edukiak, jarduerak, ebaluazio-prozesua eta irizpideak, egutegia eta ordutegia. Autotxostenean mudle plataforman eskuragarri dagoela adierazten da, baina gomendagarria litzateke titulazioaren web orrialdean ere eskuragarri egotea.
- Eguneratu irakaskuntza gauzatzeko erabiliko diren hizkuntzak egiaztapen-memorian onartutakoekin.
- Sartu titulua emateko lortu beharreko gaitasunak.
- Sartu Gradu-bukaerako lanari buruzko informazioa.
- Sartu irakasleei buruzko informazio zehatzagoa (izena eta irakaskuntza- eta ikerkuntza-profilari buruzko informazioa).
- Sartu ikasleak orientatzeari buruzko informazioa web-orrialdean.
- Sartu Baliabide materialak eta zerbitzuei buruzko informazioa. Autotxostenean adierazi denez, informazio hori mudle plataformaren bitartez dago eskuragarri, baina hobe litzateke tituluaren webgunean ere eskuragarri egotea.
- Sartu kexa eta erreklamazioen sisteman sartzeari eta laneratzeari buruzko informazioa.

Aurkitutako jardute onak:

Mondragon Unibertsitatearen webgunean, ikasle berrientzako microsite bat dago, eta bertan aurki daitezke, besteak beste, eskuragarri dauden bekei buruzko informazioa, ikasleen esku jarritako zerbitzu eta azpiegituren deskribapena eta tituluen bilatzaile bat.

Webgunean Mondragon Unibertsitatearen bideo korporatibo bat dago ikusgai, Unibertsitate horren balio positiboak nabarmentzen dituena. Bideoak Mondragon Unibertsitatearen irudi erakargarria ematen du aditzera, eta aukera ematen du, gainera, erakundeak erabilitako filosofiaren eta irakaskuntza-sistemen funtsezko alderdiak ezagutzeko.

Ikasketei buruzko informazioa jarraitzeko aukera ematen du webguneak, gizarte-sareen bitartez.

2. KALITATEA BERMATZEKO BARNE-SISTEMA (KBBS / SIGC)

Irizpidea betetze mailaren azterketa:

Tituluari buruzko autotxostenean aurkeztutako informazioarekin ezinezkoa da egiaztapen-memorian deskribatutako prozedura guztiak martxan jarri diren edo ez balioestea.

Aurkeztutako autotxostenean zenbait adierazle bildu dira, emaitzen balorazioarekin, hobetzeko proposamenen jarraipenarekin eta identifikatutako indarrekin batera. Aipatutako adierazleen artean, errendimendu-tasa eta uzte-tasa kalkulatu dira.

Hobekuntza proposamenak:

Hobe litzateke tituluaren arduradunek, jarraipen-autotxostenean, kalitatea bermatzeko barne-sistemaren aplikazioaren balioespen argiagoa egitea, aurkitutako problematikak eta haiek konpontzeko hartutako erabakiak identifikatuta. Atal horretan argi eta garbi adierazi beharko litzateke, batetik, adierazle eta emaitza nagusiak aintzat hartzen eta aztertzen direla, eta, bestetik, azterketa hori kontuan hartzen dela titulua hobetzeko ekintzak eta aldaketak proposatzeko.

Komeniko litzateke, noski, egiaztapen-memoriaren kalitatea bermatzeko sistemari buruzko atalean aurreikusitako jardunekin aurrera jarraitzea.

Aurkitutako jardute onak:

Autotxostenean, adierazleei buruzko balioespen ikusgarria aurkeztu da, semaforoan bitartez.

3. HOBKUNTZA NEURRIAK

Irizpidea betetze mailaren azterketa:**Hobekuntza proposamenak:**

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak AUDIT programarako eredu bat aurkeztu zion agentziari. Unibasqek horren aldeko txostena eman zuen, baina hobetzeko zenbait proposamen gomendatu zituen. Horren ondorioz, tituluari buruzko ondorengo autotxostenetan, agentzien txostenetan ezarritako gomendioei jarraiki zer ekintza bete diren adieraziko da, edo bestela, txosten horietan ezarritako hobekuntza-ekintzak zergatik ez diren bete justifikatuko da.

Aurkitutako jardute onak:

TXOSTENAREN ONDORIOAK:

Webgunean eskainitako informazioa oso eskura erraza eta argia da formatuari, azalpenen ordenari eta nabigatzeko erraztasunari dagokienez, baina, dena den, oraindik ere badago zer hobetu zenbait alderdi espezifikotan, eta alderdi horiek hobetzeko gomendio batzuk eman ditugu.

Jarraipen-autotxostenean, balioespen argiagoa jaso beharko litzateke kalitatea bermatzeko barne-sistemaren aplikazioari buruz. Atal horretan argi eta garbi adierazi beharko litzateke, batetik, adierazle eta emaitza nagusiak aintzat hartzen eta aztertzen direla, eta, bestetik, azterketa hori kontuan hartzen dela titulua hobetzeko ekintzak eta aldaketak proposatzeko.

Hobe litzateke AUDIT sistema fase guztietan ezartzea, eta adierazi beharko litzateke, halaber, Unibasqek sistema hori ezartzeko ereduari buruz eman zuen txostenean jasotako gomendioak nola bete diren.

Eskura dagoen informazio publikoan, agentzien txostenetan ezarritako gomendioak kontuan hartuta egindako ekintzetan eta kalitatea bermatzeko barne-sistemaren funtzionamenduan oinarrituta aurkeztutako ebidentziak kontuan hartuta, hurrengoa irizten da, txosten honetan gomendatutako hobekuntza proposamenak aintzat hartuta, titulazioaren ezarpenaren jarraipen egokia burutu daitekeela.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko urriaren 4an,